



HamaiKa

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN ALDIZKARIA

18.Zenb. Urtarrila 2023



EMAKUMEZKOEN EUSKAL SELEKZIOAK
TXILEREN AURKAKO GARAIENAREKIN ITZULI ZEN

JARRAITU BEHARREKO BIDEA



EUSKAL TALDEEN
PLENOA
GAZTEEN KOPAN



EUSKADI MODU GOGOAN-
GARRIAN PASA DA AZKEN
FASERA FUTBOL ARETOAN



A. ASLAK DEBUTA EGIN
DU EMAKUMEZKOEN
1. MAILAKO RFEF-N

THE POWER REVOLUTION

Gazte Nomina Konturako arrisku-adierazlea

1/6

Zenbaki hau produktuaren arriskuaren adierazlea da: 1/6 zenbakiak arrisku bikiagoa adierazten du, eta 6/6 zenbakiak, berriz, handiagoa.

Kutxabank Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtzari abikita dago. Funtz hori urriaren 14ko 16/2011 Errege Dekretuan aurreikusita dago. Funtz horrek gaur egun gehienez 100.000 euro bermatzen ditu gordailugile bakoitzeko.

POWERRA NAHI BADUZU EKARRI ZURE NOMINA ETA ERAMAN

150€*

* 150 euroko abonua: eskaintza hau soilik 2022/12/31 baino lehen beren nomina lehenengo aldiz Kutxabanken Gazte Nomina Kontuan** helbideratzen duten 35 urtetik beherako bezeroei zuzenduta dago. Nominaren zenbateko garbia 1.000 eurokoa edo gehiagokoa izatea, 24 hilabetez bertan edukitzeko konpromisoari lotuta. Kontuaren gutxieneko saldoa: 250 €. Kontuak abonua atxikipenari lotutako kapital higigarriaren etekintzat jotzen da. Hiltzarutakoa betetzen ez duen bezeroak 185,19 euroko zigorra jasoko du zenbatekoa ez ordaintzeagatik. ** Gazte Nomina Kontuaren baldintzak: Titular guztiek 35 urte baino gutxiago izatea. Hilean 600 euroko gutxieneko nomina edo langabeziako ordainsaria sartzea (hilean 400 eurokoa pentsioei dagokienez). Urteko likidazio-aldi bakoitzean gutxienez 6 hilabetez bete behar da helbideratzea. Baldintza hori bete ezin baduzu, Pentsio Planetan, Baskepensionesen edo/eta inbertsio-fondoetan, batez beste, 20.000 euroko edo gehiagoko saldoa edukitzea haren ordezkotz aukera da. Txartelen bidez urteko 1.200 euroko kontsumo garbia egitea edo urtean 12 saltokitan erabiltzea. Online Bankako zerbitzuak kontratatuta eta titularretako bakoitzaren telefono mugikorraren zenbakia emanda edukitzea. **OK** Kontuaren baldintzak urtean behin berrikusten dira. Baldintzetako edozein ez betetzeagatik 50 euroko komisioa kobratuko da automatikoki, sortzapenaren ondorengo hilabeteetan. Baldintzak ez betetzearen ondorioz, 3.000 euroko batez besteko saldoa izanez gero, ITN %0 izango litzateke eta UTB -%1,67. Baldintzak betetzen ez direnean UTB hori alda daiteke, kontuen batez besteko saldoaren arabera delako. Kutxabank SA, Kale Nagusia 30-32, Bilbo, IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. Tomoa: 5226; Liburua: 0; Orria: BI-58729; Folioa: 1; Inskripzioa: 1.

KUTXABANK
KORNER
kutxabankcorner.eus



3	EDITORIALA
4-5	LEHEN MAILA
6-7	BIGARREN MAILA
8-11	RFEF 1. /RFEF 2./ RFEF 3.
12-13	SELEKZIOAK
14-15	EUSKAL SELEKZIOA-TXILE
16-18	EMAKUMEEN FUTBOLA
19	KOPA
20-21	OINARRIZKO FUTBOLA
22-23	ARETO FUTBOLA
24	AHOLKU MEDIKOAK
25-26	BERRIAK

©:
**EUSKADIKO FUTBOL
 FEDERAKUNDEA
 FEDERACIÓN VASCA DE FÚTBOL**

Erredakzio Batzordea
 Comité de Redacción
 Javier Landeta, Kepa Allica,
 Haritz Gallastegi, Neil Ganzabal
 y Fran Rodríguez

Koordinaketa. Coordinación
 Disenu eta Maketazioa
 Diseño y Maquetación
 Cantera Deportiva S.L.
 Argazkiak. Fotografías
 Federación Vasca de Fútbol

HAMAIKA
 Euskadiko Futbol Federakundea
 Julian Gaiarre 48 bajo
 48004 BILBAO
 Tfnoa: 94 473 19 00
 info@euskadifutbol.eus
 Depósito legal: BI-581-2014

Colaborador
 Laguntzailea 

Hamaika ez da bere laguntzaileen
 iritziaz erantzule egiten
 Hamaika no se hace responsable
 de la opinión de sus colaboradores/as

EDITORIALA

EUSKAL SELEKZIOAK GURE HARROBI GLOBALAREN ISLA FIDELA

Editorial honen lehen lerroekin, bihotz-bihotzez oroitu nahi dugu joan den irailean utzi gintuen Luis Mari Elustondo gure presidente maitea.

Goian Bego.

2022ko azken hilabeteetan kirol-protagonismoa, Euskal Futbolaren ikuspegitik, gure selekzioek hartu dute. Plazer handia izan da gure talderik gazteenen arrakastak ikustea, beren sailkapen-faseetan. Aurki, finaletan lehiatuko dira berriz, merezimendu handiz pasa baitziren, hala futboleant nola areto-futboleant. Izan ere, haiek dira gure herrian dugun kirol-mailaren zentzuzko isla, klubek, talde teknikoek eta Euskadiko futbol-sare osoak gure harrobi globalarekin egunez egun egiten duten lan handiaren isla. Futbolariak trebatzen ari dira, batez ere, etorkizun ez oso urrun batean gure gizartea gidatzeko lekukoa hartuko duen belaunaldia eratuko duten pertsonak prestatuz.

Eta abenduaren 20an Euskal Selekzioak nazioarteko partida bat jokatu zuen berriz. Oraingoan Txileren aurka. Beste urrats bat, gure selekzioa eta munduaren aurrean duen irudia aitortzeko. Poz handia izan da hori lortu izana, eta eskerrak eman nahi dizkiegu hori posible egin zuten guztiei, batez ere gure ezkutua harrotasunez eta ilusioz defendatu zuten jokalariei.

Lanean jarraituko dugu, 2023an beste urrats bat egin ahal izateko hain itxaropentsua den bide honetan.

Javier Landeta.

Presidente Federación Vasca de Fútbol.

HERIOTZA-OHARRA



Euskadiko Futbol Federakundeak biziki deitoratzen du joan den irailean Luis Maria Elustondo Ciarreta hil izana, bi legegintzalditan zehar, 2013 eta 2021 urteen artean.

Euskal futbolak bere maitasun eta esker on guztiak helarazten dizkie bere maiteei.

Atsedean hartu bakean. Goian Bego.

ATHLETIC CLUB, EUROPAKO LEHIAKETETARA ITZULTZEKO BORROKAN

Zuri-gorriek indartsu ekin zioten denboraldiari, lehen partidetatik postu kontinentalak lortzeko borroka-gunean sartzeko.

Fran Vicente



Athleticek Europako txapelketetarako sailkatu nahi du berriz, eta denboraldi hasieratik kokatu da sailkapenaren goiko aldean. Er-

nesto Valverdek talde zuri-gorriaren aulkian emandako hirugarren etapan, taldeak 16 puntu eskuratu zituen, lehenbiziko zazpi jardunaldietan lor zitezkeen 21

puntuetatik. Horrek itxaropena piztu zuen zaleen artean, 2017-2018 denboraldian azkenekoz izan ziren nazioarteko hitzorduetara itzultzeko.

BILBOTARREK 125 URTE OSPATUKO DITUZTE 2023AN

Athleticek 125 urte bete ditu 2023an, eta abenduaren 29an eman zien hasiera urteurren horren ospakizunei, zaleekin jardunaldi bat igaroz San Mamesen: 'San Mames, Kantuz' egin, Bilboko Abesbatza Elkarteak bandera igo eta estadioan jarritako pantaila erraldoien bidez Betis-Athletic partida ikusi ahal izan zen.

HOTEL
GRAN
BILBAO

Un lugar donde la vida está para vivirla, para soñarla.
Planea una escapada cerca de casa.

¡Alójate con nosotros!



LIFE IS AN **EXPERIENCE**

15% de dto.
para lectores de la revista

Código: **HAMAICA**



REALA BETE-BETEAN SARTU DA CHAMPIONS EREMUAN

Donostiako taldea sasoi betean iritsi zen Qatarreko Munduko Txapelketak eragindako geldialdira, eta joko- eta emaitza-erritmo handiari eustea lortu zuen lehiaketara itzultzean.

Fran Vicente



Reala denboraldiaren hasieratik jarri zen goiko aldean, eta orduetik lehian murgilduta dago, Champions League-ra sartzeko aukera

ematen duten lehen lau postuak lortzeko. Imanol Alguacilen taldeak sasoi betean iritsi zen erregulartasunaren torneoan Munduko Txapelketak eragindako geldial-

EUROPA LEAGUE-KO AMETSAK BIZIRIK JARRAITZEN DU

Ligako txapelketan lan ona egiteaz gain, Realak ondo bukatu zuen Europa Leagueko multzoen fasea ere, F Multzoko lehen sailkatua izan baitzen, 15 punturekin, Manchester Unitedek bezala, zeina 0-1 emaitzarekin gainditu baitzuen irailean Old Trafforden. Imanolen mutilek final-zortzirenetarako aurkariaren zain daude, eta partida martxoan jokatu da.

dira, eta, Qatarreko hitzorduaren ondoren, etxeko lehiaketetara itzultzean goiko postuetan egoteko moduko erritmoari eutsi diote.

IPARBUS

ISO 9001
BUREAU VERITAS
Certification

Member of
BASQUE LUXURY

IPARBUS
VIP SERVICES

MINIBUS VIP
hasta 20 plazas

AUTOCARES VIP
hasta 47 plazas

943 491 801 | 606 305 143

www.iparbus.com

DEPORTIVO ALAVES, ELITERA BIDE AZKARRETIK ITZULI NAHIAN

Arabako taldea Lehen Mailara zuzenean igotzeko bi plazetako bat lortzeko borroka berdinduan murgilduta dago kanpainaren hasieratik.

Fran Vicente



**HAMAR URTE,
BIGARREN B
MAILATIK IGO
ZENETIK**

2023an hamarkada bat bete da Deportivo Alaves hirugarren mailako putzutik -orduko Bigarren B Mailatik- atera zenetik. Natxo Gonzálezen gidaritzapean, arabarrek denboraldi osoa eman zuten beren multzoko buruan eta Jaén hartu zuten mendean kanporaketa erabakigarrian. Hiru urte geroago, Bordalasen eskutik, taldea Lehen Mailara igo zen.

Alavesek aurreko denboraldian galdu zuen maila berreskuratzeko apustua egin du, eta Santander Ligara igotzeko borrokan murgil-

duta dago. Babazorroak indartsu hasi ziren Smartbank Liga zorrotzean, baina amore eman behar izan zuten lau porroten ondorioz. Bigarren itzulian, maila berres-

kuratzea espero dute, igotzeko hautagaien zerrenda handia baita, eta lehiaketa honetan azken jardunaldira arte borrokatu behar baita urtero.

liberygrupo.com
f t i
Premium Taxi
Transfer aeropuerto-estación-hotel
Tours turísticos
Eventos / Galas / Congresos
Compañías aseguradoras

VTC Service
libery

BUS Service
libery

liberygrupo.com
T: 945 259 300

- Alquiler de autocares y microbuses
- Transporte escolar y de empleados
- Viajes turísticos / Agencias
- Eventos / Congresos
- Clubes deportivos / Aficiones



SD EIBAR OHOREZKO PLAZA BAT LORTZEKO BORROKAN ARI DA BERRIZ

Gaizka Garitanoren taldea sailkapenaren goialdean kokatu da berriz, azken txistua jo arte emozioa eta borroka izango dituen lehiaketan.

Fran Vicente



Iaz trantze estua pasatu ondoren -igoeraren atarian geratu baitzen, azken jardunaldian eskura izan bazuen ere-, Eibar Smartbank Ligako onenen artean

kokatu da berriz kanpaina honetan, igotzeko helburuarekin. Gaizka Garitanoren taldeak bigarren postuan bukatu zuen lehen itzulia, Las Palmasengandik puntu bakarrera.

LEHEN ITZULIAN ETXEAN GALDU GABE

Eibar bere denboraldi onaren gakoa bihurtzen ari da Ipurua. Lehen itzulia, talde gorri-urdinak ez du partidarik galdu zaleen aurrean, 30 puntuetatik 24 batu baititu jokaturako hamar partidatan. Mirandes, Albacete eta Alaves izan dira Eibarren berdinketa lortu duten talde bakarrak.

Armaginek beren puntuazio-erritmo handiari eusten saiatuko dira txapelketaren bigarren zatian, Ipurua berriz Lehen Mailako agertoki izan dadin.

Kaiku
Km.0

ERDI-GAINGABETUA

Baserriko esne arduratsua

Zure taldeak beti esnerik onena edan dezan, Kaikuko abeltzainok egunero jasotzen dugu baserriko esne arduratsua.

Guretik
- Zurera -

Aupa txapeladunak!

KAIKU KMO AIN MNS SUSTENIBILE

Este esne arduratsua jasotzen duela, guretzat da. Porke? BERRI del materiala da de Baserriko esne arduratsua, reduciendo las emisiones de CO2 en un 21%.

Sistema que utiliza energía renovable para producir este esne. Es más sostenible.

100% LANTZARTE

AMOREBIETA ETA REAL UNION, BI ARRAIN MARRAZO ARTEAN IGERIAN

Urdinek eta irundarrek euskal gen lehiakorrari tira egiten diote, ekonomikoki zein kirol-arloan izugarri zorrotza den kategoria batean irauteko.

seko tarteak izan baita Bigarren Federaziorako jaitsiera-eremuaren eta SmartBank Ligara igotzeko sustapeneko postuen artean.

Amorebieta Urritxera itzuli da, joan den denboraldian Lezaman

nahitaezko erbestealdia izan ondoren, eta Haritz Mujikaren mutilak ederki aprobeztatzen ari dira bere zelaiak -eta iparraldeko klimatologiak- dakarren faktore bereizgarri hori, denboraldi honetan aurkari dituen Penintsulako ekialdeko talde ugariaren aurrean (katalanak eta levantetarrek). Bestalde, Irungo koadroak Aitor Zulaika kargutik kendu zuen 13. jardunaldian, taldea 18. postuan zegoela. David Movilla Stadium Galen aulkira iritsi izanak bultzada handia eman dio talde txuri-beltzari, bere sailkapen-egoera hobetu baitu.

David Novo

Lehen Federazioko II. multzoan sartuta, aurtengo Amorebietak eta Real Unionek beren burua egokitu behar izan dute Mediterraneoko korridorean arrantzara egitera, Kantauriko ur hotzetan hobeto mugitzen badira ere. Marrazoz inguratuta egon arren, zornotzarrak eta gipuzkoarrak ez dira gaizki moldatzen ari. Izan ere, beren bigarren urtean maila hau desagertutako Bigarren B Maila baino askoz lehiakorragoa izaten ari da, une batzuetan, bi garaipen eska-



Real Unionek irabazi du Federazio Kopako fase autonomikoa



DASTATU GURE ARDOAK.
¡EGIN ZURE ESKAERA GAUR
BERTAN!

EXPERIMENTA NUESTROS
VINOS. ¡HAZ TU PEDIDO
HOY MISMO!

arral97.com

ARDO BANATZAILEAK
DISTRIBUIDORES DE VINO

Mallabia, Bizkaia
943 17 60 75
arral@arral97.com

ORAINA OSO DESBERDINA ATHLETIC ETA REALAREN 'B' TALDEENTZAT

Sanse datorren urtean futbol profesionalean jokatzeko hautagaiekin lehiatzen ari da eta Bilbao Athletic, berriz, une txarrean dago.

D. Novo

Aurpegia eta ifrentzua, Estatuko futboleko hirugarren mailan lehiatzen diren euskal filial bien-tzat. Real B Lehen Federazioko II. multzoko liderra izatera iritsi da; Bilbao Athletic, berriz, kontrako egoeran izan da, azken sailkatua izan baita Osasuna eta Bar-tzelonaren 'B' taldeek ere osatzen duten multzoan.

2025era arte erakunde txuri-urdinari lotuta jarraituko duen Sergio Franciscok entrenatzen duen taldea puntuak lortzeko

duen erraztasunaz baliatzen ari da goiko aldean finkatzeko. Donostiarrak, oraingoz, mailako euskal talderik onena dira eta igoera-fasea jokatzeko hautagai sendoak ere bai, etxeko torneo-aren lehen itzulian jokatu-takoaren arabera. Gainera, Zubie-tak futbolariak prestatzen jarraitzen du lehen talderako. Aurreko

ikasturtean harrobiko 17 jokalari izateagatik goraiatu zuten lehen taldea, eta, horrela, oinarritzko futbolaren aldeko apusturik nabarmena egin duen Europako liga handietako eskudra bihurtu da.

Bilbon egoera oso bestelakoa da. Talde zuri-gorriak Bingen Arostegi kargutik kentzeko erabakia hartu zuen, joan den udan lehoiek bigarren taldearen agintea eman baitzioten. Baina Alex Pallares Lezamara iritsi ondoren, Bilboko filialak egoera zailean jarraitzen du. Txakurkumee-k mende erdia baino gehiago iraun dute bigarren eta hirugarren kategorien artean, eta inoiz ez dira laugarrenera jaitsi.



Bilbao Athletic, mailari eusteko borrokan



¿Cuánta seguridad necesitas?

No podemos asegurar que tu equipo gane este fin de semana...

En cambio podemos ofrecerte la tranquilidad de estar siempre protegido. Con Surne tienes el seguro que se adapta a ti y a tus necesidades para todo lo que quieres proteger.

- Vida
- Baja diaria
- Accidentes
- Jubilación
- EPSV
- Ahorro
- Dependencia
- Autónomos
- Inversión

cmb
bizkalko medikuen elkargoa
colegio de médicos de bizkaia
SEGUIMEC
ASEGURU-ARTEKARITZA S.M.
CORREDURIA DE SEGUROS S.L.

surne
seguros a pensiones

BILBAO
Cardenal Gardoki, 1
48008 Bilbao
944 792 200

SAN SEBASTIÁN,
Easo, 7 · 1ºD
20006 San Sebastián
943 430 798



Sestao zorrotz da nagusi

SESTAO RIVER, IGOTZEKO URRATS SENDOAREKIN EUSKAL TALDEEN HEREN BATEKIN BATERA

Sestao River, Arenas, Gernika, Alavés B, Real Sociedad C eta Beasain dira Euskadiko sei ordezkariak Bigarren Federazioko 2. multzoan.

David Novo

Denboraldi honetan Bigarren Federazioko 2. multzoa osatzen duten 18 taldeen herena Euskal Herrikoak dira. Gure sei ordezkarien

artean, orain arte, Sestao River nabarmentzen da. Berde-beltzak denboraldi bikaina egiten ari dira eta neguko txapeladunen ohorezko titulua eskuratu dute: lehen postua Ligaren erdialdera iritsita. Ezkerrekoek maiatzean errepikatu nahi duten, horrela, mailaz jauzi egin, joan den urtean gutxigatik galdu baitzuten aukera.

Maila bat beherago dago multzoko talde multzo handia, besteak beste, Arenas, Gernika, Alaves B eta Real Sociedad C. Laukote horretatik historikoa gailentzen da, iazko esperientzia errepikatu nahi

duelako, eta Gernika, atarian gelditu zelako. Haiek dira igoera-fasean egoteko aukera gehien dutenak. Baina berdintasuna hain da handia, eta saria eta zigorra duten plazen kopurua hain da handia proportzioan -hamazortzietatik hamar-, non bolada txar batek ez jaisteko borrokatzera eramango zaituen, eta bolada on batek, berriaz, goialdean jarriko zaituen. Beraz, oraindik goiz da gorri-beltzek, gernikarrek edo bi filialek helburuak finka ditzaten. Behetik, Beasainek sufritu du gehien euskal taldeen artean.

Coca-Cola

MARKAK HAUTSI DITUEN BARAKALDOK EMOZIOA KENDU DIO LIGAREN LIDERGOARI

Ligako titulua eta zuzeneko igoera dagoeneko adjudikatuta daudela ematen du, baina lehia gogorra dago play offetako postuetara sartzeko eta jaitsierakoak saihesteko.

D. Novo

Barakaldo, Hirugarren Federazioko euskal taldea, esku sendoz eta pitzadurarik gabe da lehena sailkapenean -horrek automatikoki mailaz jauzteko aukera emango lioke maiatzean-. Hortaz, emozioa izango da Bigarren Federaziora igozteko aukera izango duten euskal ordezkariak zein izango diren jakitea, Beasainek aurreko denboraldian egin zuen bezala.

Azken hamarkadetan izaten den ligarik laburrenaren lehen itzulian, Basconiak, Leioak, Vitoriak, Deustuk eta Portugaltek hautagaitza aurkeztu dute lehenengo bosten artean egoteko, eta Durangoko Culturalak eta Anaitasunak ahalegina egin dute bagoi nagusi horri lotzeko, salbazioa lehenbailehen lortu nahi helburu duten taldeen bigarren taldetxotik aldendu nahian. Bigarren xede hori dute Lagun Onak, Ondarroako Aurrera, Padura, San Ignacio, Urduliz, Pasaia eta Touring taldeek. Apur bat atzerago, Gasteizko Aurrera dugu,

azken sailkatua, entrenatzailea ordezkaturik norabidea garaiz aldatu nahian.

Igoera-fasean partida bikoitzeko kanporaketak itzuli dira, eta, beraz, promozioaren bidez igozteko aukera duenak joan den denboraldian baino hiru partida gehiago jokatu behar izango ditu. Bestalde, txapelketaren fase honen erakargarritasuna berreskuratu da, hau da, zure jendearen aurrean, play offetako jai giro bikaina bizitzea.

**JOAN-ETORRIKO
ERRONDAK
IGOERAKO
PLAY OFFEAN**

Pandemiak eragindako kalteak gaindituta, Espainiako Futbol Federazioak erabaki du igoera-fasean partida bikoitzeko kanporaketak berreskuratzea. Beraz, bai fase autonomikoan -non euskal multzoko bigarren eta bosgarren postuen artean sailkatutakoak elkarren artean neurtzen diren-, bai Estatuko kanporaketan -igoerarako azken urratsa eta erabakigarria-, taldeek partida bat jokatuko dute gutxienez beren zelaian.



Barakaldok galdu gabe amaitu zuen lehen itzulia



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Julian Gaiarre 48 bajo
48004 Bilbao
Tlf.: 94 473 19 00
Fax: 94 473 22 21

La información en un

click



Web | www.euskadifutbol.eus
Twitter | @EFF_FVF
Instagram | EFF_FVF

12 #GIZONEZKOEN SELEKZIOAK



16 urtez azpikoak



14 urtez azpikoak

16 ETA 14 URTEZ AZPIKO EUSKADIKO SELEKZIOEK ESTATUKO LEHEN FASEA GAINDITU DUTE

Euskal taldeen irudi bikaina Seleksio Autonomikoen Txapelketako lehen fasean. Kadeteak eta infantilak hurrengo fasera pasako dira.

Raúl A. Collantes

Urdulizen izan zen B Multzoan sartutako Euskadiko seleksioek egoitza; bertan jokatu zituzten Espainiako Seleksio Autonomikoen



Txapelketako lehen faseko partidak. Bi euskal taldeek Extremadura eta Balear Uharteren aurka jokatu zuten, eta Urrezko Faserako sailkatu ziren. Multzo ba-

koitzeko lehenak eta bigarren postuan geratutako bi onenak sartu dira fase horretan, eta otsailaren 11, 12 eta 13an jokatuko da.

Kadeteen taldeak 3-0 irabazi zuen Extremadurako taldearen aurka eta lehen hiru puntuak eskuratu zituen. Bigarren partidari, Loren Barbadoreen taldeak hutsen berdindu zuen Balearren aurkako lehia polit batean, eta beste puntu bat lortu eta pasea ziurtatu zuen.

Mikel Duquek, Andoni Loraneke eta Asier Ormazabalek zuzendutako infantilak 1-1 berdindu zuen Extremaduraren aurka, gogor landutako partidaren azken txanpan sartutako gol garrantzitsu batekin.

Hurrengo hitzorduan, 14 urtez azpiko taldeak 1-0 irabazi zion Balear Uharteretako taldeari, puntu bat eginez geldikako jokaldi batean. Hiru puntu garrantzitsu fasetik galdu gabe igarotzeko, 'handiak' bezala.

13 #EMAKUMEZKOEN SELEKZIOAK



17 urtez azpikoak



15 urtez azpikoak

17 ETA 15 URTEZ AZPIKO EUSKADIKO SELEKZIOEK HORTZAK ERAKUTSI DITUZTE AUTONOMIKOAN

Bi selekzioek Errioxa eta Kantabria hartu zituzten mendean, otsailean jokatu den Urrezko Faserako sailkatzeko.

Txemi García

Euskadiko 17 urtez eta 15 urtez azpiko taldeek lehen fase bikaina osatu zuten selekzio autonomikoen estatuko txapelketan. Errioxan abenduaren 10etik 11ra bitartean jokatuako bi partidak irabazi zituzten. Gure jokalariek A Multzoan sartu ziren, Aragoi, Kantabria eta Errioxako ordezkariekin batera, baina Aragoiko jokalariek aurka jokatu gabe. Miren Arrondok

eta Berezi Ruizek entrenatutako 15 urtez azpiko taldea gogor aritu zen Errioxaren aurkako partidaren (2-0), eta June Murillo eta Aiara Carrerak sartu zituzten golak. Jon Kepa Gonzalezek eta Eztizen Merinok gidatzen dituzten nagusiek ondo hartu zuten gogoan, eta gol asko egin zizkieten anfitrioiari (4-0). Ane Baigorri, Naia Ocio (2) eta Elene Gurtubay izan ziren golegileak. Kantabriaren aurkako lehiaren, 15 urtez azpiko taldeak irabazi zuen (1-4), eta Yenay Urdampilleta, Paula Ron, Aiara Aguirrezabala eta Helena González izan ziren protagonistak. Are biribilagoa izan zen 17 urtez azpiko taldearen emaitza markagailuan (9-0). Honako hauek sartu zituzten golak: Maya Sáez, Izaro Torrontegi, Ane Baigorri, Daniela Agote, Ane Isasisasmendi (3), Naia Ocio eta Nahia Azpirotz

EMAKUMEZKOEN EUSKAL SELEKZIOA TXILEREKIN LEHIAN, NAZIOARTEKO MAILA HANDIAN

Euskadiko Federakundeko presidente Javier Landetak irrikaz itxoindako albista iragarri zuen. Euskal Selekzioa berriz lehiatuko zen.

Txemi García

Oraingo honetan Txileren aurka, abenduaren 20an Mendizorrotzan. Talde gogorra eta lehiakorra. Partidak aldarrikatzeko ere balio izan zuen, Landetak nabarmendu zuen bezala: “Nire ustez, ofizialtasuna lortzeko alor askotan jokatu behar dugu. Bada, guri, gaur aurkezten dugun honetan egokitu zaigu. Euskal Selekzio ofiziala nahi dugu eta hori aldarrikatzeko modua izango dugu”. Hitz horien ondorioz, goi-mailako talde tekniko bati eman zioten Euskadiren agintea. Talde baten gisa aritu ziren lanean, baina postuak zehaztuta zeuden, kirol-zuzendari Mikel De Gre-

goriok partidaren aurretik azaldu zuen bezala. Juanjo Arregi entrenatzaileari Ainhoa Tirapuk lagunduzion bigarren postuan, eta Sandra Ramajok ordezkari gisa. Athletic Clubeko eta Realeko jokalaririk ohiekin bat egin zuten June Mendizabal prestatzaile fisikoak, Andere Leguina atezainaren entrenatzaileak, Arrate Orueta medikuak eta Itziar Muriel eta Olatz Fernández fisioterapeutek. Guztiak goi-mailako esperientziadunak emakumezkoen futbolekoak. Gasteizko partidua festa bat izan zen eta 2.500 pertsona inguru bildu ziren harmailetan. Garaipena eta bi taldeen jokalarierrendak go-goangarriak izango dira.

» EUSKADI 3-0 TXILE

EUSKADI: Amaia Peña (Zalba, 46'), Gastearena (Urruzola, 70'), Etxezarreta, Iraia (Ane Miren, 80'), Nevado, Baños, Jone (Arene, 70'), Cecilia (Vilarriño, 56'), Eizagirre, Amaiur (Zubieta, 80') y San Adrián (Zugasti, 56').

■ GOLAK

1-0 min. 41 Nerea Eizagirre; 2-0 min. 70 Amaiur; 3-0 min. 84 Ane Miren



Euskadik konpromisoa, lana eta potentziala erakutsi zituen zelaian. Egonarri eta lehiakortasunez aurre egin zion norgehiagokari, eta, azkenean, argi nagusitu zen. Atsedena hurbil zela, Eizagirrek kalitatez zehaztu zuen area, Marta San Adriñekin jokaldi bat egin ondoren. Arregiren taldeak kontrolpean izan zuen norgehiagoka eta Amaiurrek bigarrena sartu zuen, Nevadoren pase baten ondoren, defentsak egindako akats bat aprobetxatuz. Amaieratik gertu, Ane Mirenek garaipena birbildu zuen, Maitane Vilarriñok ezkerretik jo eta azken pasea egin ondoren. Partida amaitutakoan, Juanjo Arregi hautatzaileak jokaturako partida ona eta postua uzteko erabakia azpimarratu zituen. “Pausoa emateko unea da. Partidak bi kontutarako balio izan du. Emakumeak eta ofizialtasuna agerian jartzeko. Ainhoarekin, Sandrarekin, Andererekin, Junerekin... lan egin dudun bitartean, ondo erakutsi didate oso prestatuta datozela, oso profesionalak direla eta potentzial izugarria dutela”, azaldu zuen.



15 #EUSKAL SELEKZIOA



GocoTour

- **Viajes: NACIONAL e INTERNACIONAL**
- **BODAS, CELEBRACIONES, CONGRESOS, etc.**
- **VEHÍCULOS DE: 7, 18, 22, 29, 37, 40, 55, 59, 71 PLAZAS**
- **ADAPTADO MINUSVÁLIDOS (PMR)**
- **SERVICIO DE TAXI**

**Barrio Arregui | Polígono Cóndor
Edificio C | 48340 AMOREBIETA
T. (+34) 94 630 82 50
24 HORAS: T. 665 295 623
E-mail: gocotour@gocotour.com
Web: www.gocotour.com**

URTE ZORROTZ ETA GOGORRA ATHLETIC CLUB, REAL SOCIEDAD ETA DEPORTIVO ALAVESENTZAT, EMAKUMEZKOEN MAILA GORENEAN

Realak, Athletic Clubek eta Deportivo Alavesek emaitzak hobetu nahi dituzte gero eta zorrotz eta berdinduagoa den F Ligako bigarren itzulian.

Txemi García

FLigako gure ordezkariak koska bat gehiago estutu nahi dute 2023an beren makinarien funtzionamendua, duten benetako potentzialera hurbil dadin. Ez da denboraldi erraza izaten ari.

Deportivo Alavesek Liga hasiera txarra izan zuen, eta aulkian erreleboa hartu behar izan zen. Iñigo Juaristi heldu zen Mikel Cresporen ordez. Apurka-apurka, emaitza hobekak iristen hasi ziren, eta urtearen amaieran argia ikusten hasi zen tunelaren irteeran. Realak, bitartean, lehen aldiz parte hartu



Athletic-Reala, San Mamesen

du Champions Ligan, baina Muniqueko Bayernek Natalia Arroyoren taldea mendean hartu zuen kanporaketa historikoan. Ligan, donostiarrei kosta egin zitzairen hasiera. Puntu-gabezia horrek Europako postuetatik urrundu zituen, baina txuri-urdinek distantzia

murriztu nahi dute. Bestalde, Athletic Clubek trantsizioko denboraldi bat hasi zuen oso bloke gazte batekin. Erregularitasun-faltaren ondorioz, Iraia Iturregiren taldearen hasiera ez zen lasaia izan. Egoera bideratzen jakin zuten.

 **Sport·designer**




GRUPO CAMPUS

precio / prezioa
9,90 €

Diseño de ejercicios de entrenamiento, simulaciones de situaciones de juego en movimiento, creación de jugadas de estrategia, creación de formatos de convocatorias, books de ejercicios y estrategia, acceso a contenidos y formatos on-line, etc...

Disponible en Euskera – Castellano.

Más información: www.sport-designer.com



IGOERA ETA MAILARI EUSTEA, EIBARREN ETA ATHLETICEN FILIALAREN ERRONKAK

Athletic Club B eta Eibar lehian ari dira emakumezkoen Zilarrezko Txapelketa berrian, helburu kontrajarriekin eta Ligan haziz.

Txemi García

Lehen RFEFn izatearen ondorioz, lehoiek eta armaginek gogor aritu be-



Eibar B

har izan dute lehian eskatzen den maila erakusteko. Yeray Martinek entrenatutako Unbeko taldeak hasiera izugarria eman zion txapelketa lehen hilabeteetan. Sendotasun handia erakutsi zuen defentsan, baita eraginkortasuna ere. Kopako kanporaketako porrota iritsi zen Tenerife Fundazioaren aurka. Horrek ondorioak izan zituen Ligan, behera egin baitzuten. Alabaina, Eibarrek erreakzionatu egin zuen, igoera lortzeko lehian egoteko.

Jonathan Ledesmak gidatzen duen Lezamako taldeak, bestetik, erronka batekin egin zion aurre txapelketa: trebatzen eta lehen taldeari jokalaria ematen jarraitzea. Neska zuri-gorriek sufritu egin zuten. Zazpi lehia punturik lortu gabe traba izan ziren. Lehen garaipenak bidea erakutsi zien, eta bilbotarrak ezagutza hartzen hasi ziren, salbazioa lortzeko aukera izan arte.

ILUSIOZ BETERIKO ESTREINALDIAK ATHLETIC C ETA BIZKERRE TALDEENTZAT

Bizkerre eta Athletic C taldeek mailari eusteko lanean dihardute; arrakasta handia litzateke hori, Bigarren RFEFko txapelketa berrian egin baitute debuta.

Txemi García

Igoeraren ondoren, aldaketak egin zituzten bi taldeen aulkian, baina etxeko jendearen aldeko apustua egiteko pentsamoldearekin. Getxoko taldeak Carlos Docandorekin izan zuen konfiantza eta gutxi ukitu zuen plantilla. Boleuko taldearen erantzuna izugarria izan da. Etxea zimenduetatik egiten dela jabetuta, gol gutxien jaso duen taldeetako bat dira gaur egun. Hasiera ona funtsezkoa izan zen -15 puntutik



Bizkerre konplexurik gabe estreinatu da

11 eskuratu baitzituzten- patxadaz lan egin eta gune lasaian kokatzeko. Gogorragoa izan zen denboraldiaren hasiera Jordi Telletxearen talde gaztearentzat. Teknikariak ohartarazi zuen zaila izango zela zorroztasunik handiena zuen Ligara egokitzea. Sei

jardunalditan ez zuten punturik eskuratu, eta lehen garaipena zortzigarren jardunaldian iritsi zen. Inflexio-puntua izan zen, 13. jardunaldian zuri-gorriek jaitzieratik irtetea lortu baitzuten. Orain hoberantz egiten jarraitzea da erronka.

REAL SOCIEDAD B, LEHEN NAZIONALERAKO IGOERAREN BILA

Argiak eta itzalak Espainiako I. Mailako II. Multzoan. Ezustekorik ez badago, Real Sociedad Bk igoera lortuko du. Baina behera egiteko arriskua dago beheko postuetan.

Txemi García

Real Sociedad B izan da jaun eta jabe. Txurirurdinak lehen postuan kokatu ziren, eta jarri zuten puntuerritmoari, momentuz, aurkarietako batek ere ezin izan dio eu-



Real Sociedad B, titulurako favoritoa

BORROKA IREKIA EUSKAL LIGAN GORA EGITEKO, ALAVES B BURUAN DELA

Igoerako postu finko bakarra eta jaitsierako hiru izanda, emozio handia izango dugu Euskal Ligan. Badirudi Alaves B dela favoritoa txapeldun izateko.

Txemi García

Euskal Ligak bigarren itzuli interesgarria izango du igoerari eta mailari eusteko borroketan. Alaves eta Bizkerre taldeen filialak hautagai sendoenak dira itxuraz. Baina lasterketa horretan beti izaten dira ezuste-



Alaves B-k lider amaitu du lehen itzulia

tsi. Beste aldean, Aurrera Vitoria eta Tolosa daude. Gasteiztarrek ezin izan dute jaitsiera postuetatik ihes egin, eta Tolosa ere bertan kokatuta dago. Itxuraz, Arratiak ihes egin du postu horietatik. Baina Igorrekoek badakite ez dagoela fidatzerik. Apur bat lasaiago dabil San Ignacio, baina erne egon behar du gorabeheren aurrean.

Goialdean, berriz, honako hauek ditugu borrokan hasteko asmoz: Añorga, Eibar B eta Oiartzun. Gipuzkoako hiru taldeek onenen artean egon nahi dute amaierara arte. Rezolakoak fidatzeko moduko bloke gisa agertzen dira berriz, beren zelaia gotorleku modura hartuta. Talde filiala, mailaz igo ondoren, egokitzen joan da, jokalaria lehen talderako prestatzeko premiarekin. Eta Karla Lekuonaren taldearen kasuan, lehen sailkatuen aurkako lehia zuzenak izan ziren bere Akilesen orpoa.

koak. Elorrio lehen postuetan ikustea harritzekoa ez bada ere. Eleizalderen jokalariek denen errespetua dute dagoeneko, eta ezin da jakin ezustekoa emango duten. Goi postuetako tropel horretan, gehiago kostatu zaie erregularitasuna lortzea Leioako, Pauldarrak, Zarautz eta Betiko Neskak taldeei. Puntuak galdu zituzten, baina, hala ere, kanpaina ona egiten ari dira. Eibar C-k oso ongi atera du bere debutean, ia bikain. Basauriko Kimuak eta Peña Athletic ere presiorik gabe ari dira. Santurtziarrak jo eta su ari dira lanean Euskal Ligara itzulita, eta basauriarrek, berriz, maila altuagoetara iritsi nahi dute. Gero hasten dira zalantzak. Lakuak eta Anaitasunak ez dute lortu ildo erregularra hartzea emaitzetan. Horren ondorioz, arazoak dituzten gainerako klubetatik hurbil daude. Hauskaintz, Añorga B, Oiartzun B, San Ignacio B edo Goierri Gorri. Denen artean jaitsierako bi postu jokatuko dira. Dirudienez, horietako bat Ipar Arriaga hasiberriarentzat izango da.

ATHLETIC CLUBEK LAUGARREN URTEZ JARRAIAN JOKATUKO DITU KOPAKO FINALERDIAK, OSASUNAREN AURKA

Athletic Club laugarren denboraldiz jarraian sartu da Kopako finalerdietara. Talde zuri-gorriak 20 kanporaketa irabazi ditu txapelketa honetan. Real final-laurdenetan geratu zen, Bartzelonaren aurka gutxienagatik Camp Nou galdu ondoren. Kanporaketa bat lehenago, final-zortzirenetan, Alaves geratu zen kanpoan, Sevillaren aurka 0-1 galduta. Eibarrek, bes-

etik, zorte txarragoa izan zuen, eta aukerarik gabe geratu zen Ibiza Islas Pitiusasen aurkako bigarren kanporaketan, talde hori armaginak baino bi kategoria beherago egon arren. Fase horretan bertan erori zen Real Union, Mallorcaren aurka, txapelketa ezustekoa egin eta lehen kanporaketan Cadiz gainditu ondoren.

Aipamen berezia merezi dute, halaber, Arenas, Gernika eta Ses-

tao Riverrek, Bigarren Mailako bi talde (Lugo eta Leganes) eta Lehen Federazioko bat (Ferrolgo Racing) utzi baitzituzten bide bazterrean, hurrenez hurren. Hiru talde bizkaitarrek Valladolid, Celta de Vigo eta Athletic izan zituzten aurkari gero. Amorebietak galdu egin zuen Atletico Saguntinoren aurka eta Dinamo San Juanek ez zuen aurreko fasea gainditu Autosen aurka.

EMAKUMEZKOEN KOPAKO FINAL-ZORTZIRENAK, BIDEAREN AMAIERA EUSKAL TALDE GEHIENENTZAT

Athletic Club da Emakumezkoen Kopako final-zortzirenak gainditu dituen euskal talde bakarra. Alavesek porrot egin zuen Granadaren aurka, eta Realak amore eman zuen etxean Atletico de Madrilen kontra. Eibarrek, bestalde, ezin izan zuen Fundación Canaria gainditu. 2022/2023 denboraldiko kopako edizioa

Bizkerrearen historian sartu da, Getxokoek lehen aldiz jokatu baitzuten txapelketa hau. Lehen kanporaketan erori ziren Alhamaren aurka.

Bestalde, Real Superkopako txapeldunordea izan zen. Sporting de Huelvari irabazi zion finalerdietan, baina Barçaren aurka amore eman zuen finalean.

COLO COLOK BAIZIK EZIN IZAN DU OTXARTABE GAINDITU ARETO FUTBOLEAN

Bilboko Otxartabek Areto Futboleko Errege Kopako hirugarren kanporaketa lortu zuen. Talde bizkaitarrak Tolosako Laskorain kanporatu zuen etxetik kanpo (3-5) lehen kanporaketan;

gero, Tafa F.S. nafarra hartu zuten mendean etxean gutxienagatik (3-2), baina azkenean La Casillan galdu zuen (3-9) Bigarren Mailako Zaragozako Colo Coloren aurka.



EUSKAL TALDEEN PLENOA GAZTEEN MAILAKO KOPAN

Athletic, Eibar, Alaves, Real eta Antiguoko. Euskadiko bost taldek parte hartu dute K.O. txapelketan denboraldi honetan. Gure ordezkariak plenoa egin zuten eta Gazteen Ohorezko 2. multzoak ematen dituen Gazte Koparako plaza guztiak eskuratu zituzten. Lehen kanporaketan bi derby izan zirenez, berehala murritzuz txapelketan parte hartu zuten euskal ordezkarien kopurua. Athletic da urrutien iritsi dena, final-laurdenetan baitago.

ATHLETIC CLUB, NEGUKO TXAPELDUNA GAZTEEN OHOREZKO MAILAN

Ligaren lehen erdia, gazteen maila gorenean, zuri-gorrien eta Eibarren arteko norgehiagoka zuzen batekin amaitu zen, eta Lezamakoek garaitu zuten.

Raúl A. Collantes

Athletic Clubek Gazteen Ohorezko Mailako neguko txapel-dun-titulua eskuratuta amaitu


zuen Ligako lehen itzulia; bertan, euskal futboleko talde handiak lehen postuetan egon dira. Eibarren kanpaina oso ona izan da, partida bikainak egin baititu eta lidergoa ere dastatu baitu. Realak eta Antiguokok hirugarren eta laugarren postuak lortu zituzten, eta Errege Kopako lehen kanporaketa jokatzeke sailkatu ziren.

Alaves Ligako bosgarren postuan zegoela, ageri-agerian geratu zen euskal taldeek orain arte izan duten indarra eta egin

LEIOA, LIDER NABARMENA LIGA NAZIONALEAN

Leioa eta Beasain izan dira talde sasoikoenak Gazte Mailako Liga Nazionalako lehen itzulian. Talde horiek Real Sociedad, Eibar eta Athletic Cluben filialen aurretik egin dute distira. Liga hasiera zaila izan dute zuri-gorriek. Eta kontuz Culturalarekin.

duten lan ona. Oraindik lehian dago bigarren itzultik gertzen dena. Hemendik maiztzer bitartean, ahalegin gehiago egin beharko da txapel-dun-itateko eta Gazte Mailako Liga Nazionalera jaisteko postuak saihesteko.



Para espíritus inquietos,
nómadas y amantes de la naturaleza.

Tu próximo movimiento - Nuevo Marco Polo y Marco Polo HORIZON.



Mercedes-Benz



Aguinaga

Concesionario Mercedes-Benz
C/ Retuerto, 38. Pol. Ind. Boroa Nave, 2A-3.
48903 BARAKALDO. 48340 AMOREBIETA.
Tel.: 94 497 00 74. Tel.: 94 630 17 47.
www.mercedes-benz-aguinaga.es

ARETXABALETA ETA BERGARA GAZTEEN EUSKAL LIGAN NABARMENDU DIRA

Futbol ona eta nahiko zenbaki parekoak mailako lehen itzulian. Inork ez du lortu ihes egitea, eta datozen hilabeteetan erabakiko da dena.

Raúl A. Collantes

Lehia polita izan da, txapelketa irailean hasi zenetik oso lehiatua dagoen Gazteen Euskal Ligan jo-

katzen duten taldeen artean. Aretxabaletak eta Bergarak 36 punturekin berdinduta bukatu zuten lehen itzulia. Lehen zazpi sailkatuek sei puntuko aldea dute, eta horrek agerian uzten du astebururo kategoriako zelaietan nabari den berdintasuna.

Gernika bezalako taldeak hasieratik aritu dira pribilegiozko postuengatik borrokan, baita Leioa B ere, Sarrienako taldeak gazteekin egiten duen lan ona erakusten ari baitira jokalaria.

Añorga, Betoño eta Ariznabarra taldeek borrokan ja-

KADETEEN ATHLETIC CLUB, PARTIDARIK GALDU GABE

Athletic Club nagusitasunez gailentzen da Kadeteen Euskal Ligako 1. multzoan. Lezamako taldea partidarike galduta gabe eta bigarrenari abantaila handia aterata iritsi zen 15. jardunaldira. 2. multzoan, Realak, Alaves eta Eibar daude goiko postuetan berdinduta, puntu gutxiago aldearekin elkarren artean lehian.

rraituko dute, igoera lortzeko aukera ematen duten lehen postuak eskuratu nahian, eta ez daude batere urrun, zenbat puntu falta diren kontuan hartuta.



los más frescos

Líder en distribución de frutas y verduras.

¡¡ Estamos donde nos necesites!!



19. URTEZ AZPIKO EUSKADIKO SELEKZIOAREN SAILKAPEN HISTORIKOA, SELEKZIOEN ESTATUKO TXAPELKETAKO AZKEN FASEA JOKATZEKO

Bikain jokatu ondoren, euskal selekzioak txapelketa bateko multzoen fasea gainditzea lortu zuen lehen aldiz.

Carlos Zárate

19 urtez azpiko Euskadiko selekzioak sailkapen historikoarekin itxi zuen 2022. urtea, areto-futboleko selekzioen txapelketaren azken fasea jokatzeko. Selekzio gazteak bigarren fasera sailkatzea lortu zuen, Extremadura, Balear Uharte eta Andaluziarekin batera osatzen zuen multzoan bigarren postua eskuratuta.

Jose Manuel Corralechek, Joseba Portugalek eta Aitor Albalák gidatzen duten taldeak sendotasun handia erakutsi zuen defentsan. Lehen lehian, Julen Pandok aukera baliatu eta garaipena lortu zuen Extremaduraren aurka. Ondoren, bigarren neurketan, Balear Uharten aurkako partidari, gidoia antzekoa izan zen, baina oraingoan



19 urtez azpikoak

euskal taldeak berdinketaren gola gainditu behar izan zuen. Bihotzekoak jotzeko moduko finalean, gazteak 2-3 gailendu ziren, eta sailkapen historikoa ziurtatu zuten azken jardunaldia iritsi baino lehen. Azkenik, hirugarren partidari, amaiera bikaina eman zion faseari, titulurako hautagai baten aurka, Andaluziako selekzioaren aurka, Euskadi berdinetik berdinerari lehiatu baitzen harekin. Hala ere, gol asko sartu zizkieten partidaren azken txanpan. Aurkariaren nagu-

sitasuna gorabehera, azken emaitzak (2-9) ez zuen partidaren fase askotan izan zen berdintasuna islatu. “Oso pozik nago. Sailkatu gara eta oso partida onak egin ditugu, eta Madrilera joango gara finale-ra”, adierazi zuen Jose Manuel Corraleche entrenatzaileak.

16 urte azpiko taldeak ez zuen zorte bera izan. Aurre egin eta multzoko hiru partidetan lehiatu arren, laugarren postuan bukatu zuen. Lehenik, Mariano Ballesterosek eta Mikel Narcisok zuzendutako selekzioa 5-2 galdu zuen Extremaduraren aurka. Balear Uharten kontrako bigarren partidari, ondo merezitako berdinketa lortu zuen, azken minutuetan jokalaririk gutxiagorekin eutsi ondoren. Arauzko denbora bete ondoren, penaltietan erori zen. Azken partidari, 1-3 galdu zuen Andaluziaren aurka.

“Aurreko urteetako marka hobetzen jarraitzeko asmoz etorri ginen, eta uste dut lortu dugula. Ea aurrera egiten jarraitu ahal dugun”, adierazi zuen Mariano Ballesteros entrenatzaileak.



14 urtez azpikoak

OTXARTABE PLAY OFF-ERA BEGIRA JARRI DA, DENBORALDI HASIERA IKUSGARRIA EGIN ONDOREN

Ibarrak hasiera bikaina egin du; Zierbenak maila ertain-altuari eutsi dio, eta Afantxok, berriz, lanak izan ditu maila berriari eusteko.

Carlos Zárate

Otxartabek apustua egin du denboraldi honetan ere Bigarren Mailara igotzeko play offean sartzeko. Otxartabe talde bilbotarrak liga-hasiera bikaina egin du, eta, ondorioz, lidergorako borrokan sartu da, 12 partida

irabazi, berdinketa bat eta bi porrot izanda, eta, guztira, 37 puntu lortu ondoren.



Otxartabe-Zierbena

Bestalde, Lauburu Ibarrak ere denboraldi-hasiera bikaina egin du, eta 29 puntu lortu ditu, zortzi garaipen, bost berdinketa eta bi porrot izan ondoren. Zierbenari dagokionez, taldeak 6 garaipen, lau berdinketa eta bost porrot izan ditu lehen itzulian, eta, ondorioz, 22 puntu lortu ditu. Azkenean, Afantxo larrutik ordaintzen ari da igoberria izatea, eta 8 puntu bakarrik lortu ahal izan ditu lehen itzulian, bi garaipen eta bi berdinketa izan ondoren.

GAZTEEN MAILAKO GORA KOPARAKO SAILKATU DA

Ligako lehen itzulia modurik onenean amaitu zuen gazteen mailako Gora Bilbaok, Espainiako Koparako sailkatzea lortu baitu. Talde bilbotarrak joko bikaina egin du txapelketaren lehen zatian, eta hamabi garaipen lortu ditu. Guztira 88 gol sartu ditu, eta 20 baizik ez dizkiote sartu, maila osoan gol gutxien jaso dituen taldea izan da.

HIRUGARREN MAILAN AURRERA DE VITORIA NAGUSI DA TAULAN, ETA EUSKAL LIGAN DONIPARI

Hirugarren Mailan, Aurrera Vitoria da lehena sailkapenean, lehen itzuliaren amaieran, 38 punturekin. Talde gasteiztarrak 12 garaipen, 2 berdinketa eta porrot 1 izan ditu.

Euskal Ligan, Doniparik ditu multzoko zenbakirik onenak, txapelketako lehen zatian 39 puntu lortu baititu. Hori guztia 13 garaipen eta porrot bakarra izan ondoren; orain arte ez baitu berdinketarik izan.



Aurrera

BA AL LITEKE AHOA IZATEA KIROL-ERRENDIMENDU BAXUAREN ARRAZOA?

Klubek medikuak, entrenatzaileak, prestatzaile fisikoak eta fisioterapeutak izaten dituzte, kirolariei lasterketetan aholkuak eta laguntza emateko. Baina gutxitan izaten dute kirol-odontologia, kirolarien errendimendua ebaluatzen eta hobetzen laguntzeko.

Begoña Gómez Fuentes

KIROLAREN FISIOLOGIA: Kirola egitean, kaltea sortzen da ehunean eta hantura maila sistemikoan (zitokinak askatzen dira), eta gure gorputzak hori konpondu behar du, lehiaketetan eta/edo entrenamenduetan ezarritako helburuak bete ahal izateko.

Baina, zer gertatzen da kirolaria ez bada gai hantura hori konpontzeko, bere kirol-konpromisoetara iritsi aurretik? Kasu horretan, gorputzak prestasun handiagoa izango du lesionatzeko, eta sendatze motelagoa izateko arrazoi batzuk ahoan izan dezake jatorria.

Argi dago kirolari batek ere ez duela partidarik edo markarik onena egingo hagineko min zorrotzarekin, flemoi batekin edo hortzoi batetik hantura larriarekin. Baina kirol-odontologoaren zer-egina hortik harago doa, eta ares-tian aipatutako puntu guztiak aztertzeaz gain, kirolariaren posturologia eta funtzioa ere biltzen ditu haren eguneroko jarduean. Kontuan hartzen ditu irensketa eta mingainaren posizioa, arnasketa, hioideak garezurrarekin eta lepo-

arekin duen erlazioa, eta arreta berezia ematen dio murtxikatzeari.

Gorputza elkarrekin konektatuta dago eta, kalkuluaren arabera, biztanleriaren % 50ak baino gehiagok alde batetik bakarrik murtxikatzen du. Horrek murtxikatzeko muskulaturaren tonu unilaterala handiagoa sortzen du, eta gorputz osoko giharretako kateen asimetria ere bai.



Egoera horri denboran zehar utsiz gero, litekeena da zama handiagoa egotea euskarri-alde batean, gure gorputzak esfortzu handiagoa egin behar izatea gorputz-jarrera egonkortzeko, eta litekeena da errazago lesionatzea gihar aldetik egonkorra den jokalaria bat baino.

DENTISTA BAT KIROLARIENTZAT: Denok har dezakegu onura aho-gorputzaren ikuspegi honi esker, baina kirolariak dira gehien irabaziko dutenak kontzeptu hau beren zainketan barruan txertatzen badute.


Horretarako, kirol-odontologo batengana jo beharko dute. Ahoaren egoera orokorra baloratzeaz gain, errendimenduan eragina izan dezaketen infekziorik ez dagoela aztertuta, posturologian trebatuta egon beharko du. Horrela, miaketa errazekin eta jarrerarekin, gai izango da baloratzeko ea ahoak errendimenduan eragina duen eta posizio egokia dagoen masailezurra pausatuko.

Kaptoreren bat aztoratuta badago, kirolariak berak muskulokompentsazioak egingo ditu, eta, horiei denboran zehar utsiz gero, eragina izango dute lokomozio-aparatuan.

Elkargokidea: 48-1438
Begoña Gomez Hertz Klinika



Gorputzko 6 gihar-kateak nerbio-sistemak, muskulueskeletikoak eta faszia osatzen dituzte.



AURREKARIAK FUTBOLEAN

2009an Milanek uko egin zion Aly Cissoko fitxatzeari, hortzetako arazoak zituelako. Azterketa egin ondoren, medikuak erabaki zuen kontratua ez formalizatzea, maloklusioa zuelako, eta horrek etorkizunean lesioak eragin zitzakeelako.

Leo Spinazzola Erromako albokoak 2020an Bolognaren aurka jokatu zuen partida baten ondoren adierazi zuen 180º-ko bira eman ziola bere kirol-ibilbideari bere dentistari esker. Lesio-garai luze baten ondoren, kirol-odontologo batek baloratu zuen, eta, murtxikatzeko zuen modua simetrizatzean, lesioekin amaitzea lortu zuen.

'BATZEN GAITUELAKO-PORQUE NOS UNE' LELOA MARTXAN

Euskadiko Futbol Federakundeak uztailetik, 'Batzen Gaituelako- Porque nos une' eslogana martxan jarri du.

FVF-EFF

Ekimen honen bidez, Federazioa guztiok batzen gaituen guztiarekin identifikatu nahi da, hau da, baloiarekin, taldearekin, partidurekin, klubarekin, lehiakerekin,



tarekin, selekzioarekin, federazioaren antolakuntzarekin, zaleekin eta abar, gure kirolaren alderdi guztiak identifikatzen

dituenak.

Baina, leloa esanahi gehiago dauka. Euskadin Euskal Selekzioaren partiduak oso errotuta daude. Pertsonak kultura, hizkuntza eta hiru koloreko elastikoarekin oso identifikatuta sentitzen dira. Izan ere, Euskal Selekzioaren kamiseta janztea une bakarra eta berezia da.

Euskadiko Federakundeak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hiru lurralde federazioak batzen dituen erakundea da ere, haien arteko jarduera koordinatuz. Baita Euskadiko klubak afiliatzen diren entitateari eta entitate horren kide diren federakundeko lizentzia duten pertsona fisiko guztiak.

Erakunde gisa hazteko, partehartzaileen kopurua handitzea da helburua, ahalik eta pertsona eta klub gehien batzea, dagoeneko daudenak leialtzea eta ez direnak gehituz.

alzola
basque water

Pureza en Origen
Emerge a 1800 metros de profundidad de más de 7000 a brecha de un mayor de 10 años por las montañas.
Almacenamiento natural y proceso sostenible, un sobresaturar el calcio.

AGUA MINERAL NATURAL
Manantial de Alzola 5L

AGUA MINERAL NATURAL
Manantial de Alzola
www.alzola.com

RICARDO DE BURGOS BENGOETXEA ETA ROBERTO DIAZ PEREZ DEL PALOMAR, MUNDUKO TXAPELKETARAKO IZENDATUAK

Ricardo De Burgos Bengoetxea eta Roberto Diaz Perez Del Palomar izendatu zituzten joan den Qatarreko Munduko Txapelketarako, non Argentina izan zen txapelduna.

Biak izan ziren Munduko Kopako norgehiagokak zuzendu zituzten arbitro-kidegoetako partaideak.

Gainera, biak izendatu zituzten,

Jon Núñez Fernándezekin batera, Real Madrilek eta FC Bartzelonak jokatu zuten Espainiako Superkopa zuzentzeko arbitro-hirukote.

Bestalde, Olatz Riverak (2022tik), Iker De Franciscok (2022tik), Roberto Diazek (2008tik) eta Ricardo De Burgosek (2018tik) FIFAREN intsigniak jaso zituzten, nazioarteko arbitro gisa, Arbitroen Batzorde Teknikoaren eskutik.

MERCEDES-BENZ AGUINAGA ETA FRUTAS ZELAIA, BABESLE BERRIA ETA HORNITZAILE OFIZIALA


Euskadiko Futbol Federazioak, hazten jarraitzeko xedez, akordioa lortu du Mercedes-Benz Aguinaga babesle ofizial berriarekin eta Frutas Zelaia hornitzaile ofizial berriarekin. Mercedes-Benz Aguinagarekin sinatutako akordioari esker, EFFk furgoneta errotulatu bat izango du egunero erabiltzeko.

Fruta Zelaiarekin egindako akordioaren ondorioz, jokalariek eta arbitroek hainbat produktu izango dituzte entrenamenduetan eta torneoetan. Horrela, Frutas Zelaiaren frutak bat egiten du Alzolarekin eta Kaikurekin, EFFk urratsak ematen jarrai dezan kirolariak zaintzen, elikadura osasungarria sustatuz.

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAZIOA ETA EUSKARA, ESKUTIK HELDUTA

Euskadiko Futbol Federazioak aktiboki esku hartu du euskara sustatzeko kanpainetan. Arigune gisa parte hartu zuen Euskaraldian, eta EKFBren kanpainan ere parte hartu zuen.

Bestalde, euskararen eguna probetxatu zuen aditzera emateko Euskadiko Futbol Federaziora euskaraz zuzendu nahi duten guztiek gure hizkuntza erabiliz egin dezaketela.



ANE ASLA BORRALLOK DEBUTA EGIN DU ARBITRO GISA EMAKUMEZKOEN 2. MAILAKO FUTBOL TXAPELKETAN

Ane Asla Borrallok debuta egin zuen arbitro gisa emakumezkoen futboleko bigarren mailan. Lekua eta data gure arbitroaren oroimenean geratuko dira ziur. Urriaren 30ean izan zen, CD Juan Grande Ginelux 1-1 Oviedo Moderno CF batean, Castillo del Romeral udal-estadioan, txapelketako zazpigarren jardunaldian.

TOURING, EUSKALDUNA ETA ITURRIGORRIREN MENDEURRENAK

Touring K.E., S.D. Euskalduna eta S.D. Iturrigorri erakundeek ospatuko dute aurten mendeurrena, S.D. Retuerto, S.D. San Pedro eta Union Sport San Vicenterekin batera. Horiekin bat egingo dute 50. urteurrena ospatuko duten C.D. Berriz, Dinamo San Juan C.F. eta Danok Bat Clubek taldeek.



DONOSTIÁN

31 DE AGOSTO, 16
Tf.: 943 429 390

NARRICA, 16
Tf.: 943 422 681

SAN JERONIMO, 17
Tf.: 943 420 919

AYESTARÁN



**JOYERÍA AYESTARÁN
CON EL DEPORTE
EUSKALDUN**

Ibéricos deluxe

Delicatessen

**ESPECIALISTAS
EN CORTE DE JAMÓN EN EVENTOS
(BODAS, COMUNIONES...)**



Tienda situada en
San Sebastián (Donostia)
Calle Narrika nº 31 Parte Vieja
Telf.: 943 423 849

www.ibericosdeluxe.com

Golazo el que marcarás tú cuando cuentes tu última vueltecita.

Mochila de regalo*

Tarjeta visa nautalia gratis*

Mejor precio* garantizado

Financia tu viaje hasta en 10 meses **

Precios y descuentos especiales* en nuestras
vuelatas para jugadores y familiares

MÁS INFORMACIÓN Y RESERVAS
EN TU OFICINA NAUTALIA MÁS CERCANA:

BIZKAIA BILBAO · Gran Vía, 75 · 946 424 348 | Pza. San Fco. Javier, 1 · 946 404 028

· Pza. Santiago, 3 · 946 414 010 | **LAS ARENAS** · Mayor, 4 · 946 424 682

BASAURI · Pedro Bilbao, 2 · 946 414 508 | **ARABA VITORIA** · C.C. Boulevard · 945 103 097

GUIPUZKOA IRÚN · Pza. J. R. Agirrenetxe, 3 · 943 104 342

EIBAR · Bidebarrieta, 18 · 943 108 960 | **RENERÍA** · Av. Navarra, 63 · 943 104 344

URRETU · Labeaga, 41 · 943 109 878

Las
VUELTAS DAN
MUCHA **VIDA**
Incluso cuando has vuelto.